

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	ELAY
2. Sektorea:	<input type="checkbox"/> Hezkuntza <input checked="" type="checkbox"/> Industria <input type="checkbox"/> Osasuna <input type="checkbox"/> Zerbitzuak <input type="checkbox"/> Administrazio publikoa <input type="checkbox"/> Gizarte ekintza
3. Langile kopurua:	600 pertsona talde osoan (Europar 210 langile)
4. Webgunea:	www.elay.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Produktua: Automoziorako metalezko piezak, ebaketa Zehatzeko teknologian oinarrituta eta ondorengo eragiketekin; besteak beste, artezketa edo plastikozko gainmoldaketa. Bezeroak: Automozio ekoizleak Merkatua: Globala: Amerika, Asia eta Europar daude lantokiak

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	IRATXE MUXIKA
Helbide elektronikoa:	iratxe@elay.eus
Telefonoa:	637292820

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	KONTUEN IKUSKARITZA EUSKARAZ
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Enpresek urtero Merkataritza Erregistroan erregistratu behar duten kontuen ikuskaritza 2022an euskara hutsean egin da eta euskara hutsean erregistratu da.</p> <p>2010etik Elayko organo gorenen bilerak euskaraz egiten dira, eta 2012tik bilera horietako aktak euskaraz jasotzen dira, urteko kontuen ikuskaritza txostena izan ezik.</p> <p>2012an Deloittearen bitartez Merkataritza Erregistroan kontsulta egin zen ea euskaraz erregistratu zitezkeen, eta baiezkoa jaso genuen. Baina ondoren azaldu ziguten gaztelerara itzuliko zutela eta Merkataritza Erregistroan balioa Gaztelerako itzulpenak izango zuela, eta ez euskarazkoak. Urteko kontuen ikuskaritza txostena erantzukizun handiko dokumentua izanik, ez zeuden prestatuta euskarazkoari balioa emateko.</p> <p>Horregatik, ikuskaritza hau eta honekin lotutako akta gazteleraz erregistratzen jarraitzea erabaki zen.</p> <p>Urte batzuk beranduago lege aldaketa bat egon zen eta Administrazio Kontseiluaren akta guztiak erregistratzera behartu gintuen.</p> <p>Hau horrela izanik, eta euskararen bidean aurrera egiteko 2021etik Administrazio Kontseiluko akta guztiak euskaraz erregistratzea erabaki zen eta ez da arazorik egon.</p> <p>2021ean Elayk Deloitteari eskatu zion Elay Taldeko urteko kontuen ikuskaritza euskaraz egiteko eta Deloitte prestatzeko denbora eskatu zion. Hurrengo urtea bere aholkulariak prestatzen eman zuten.</p> <p>Deloitte egindako 2022ko ikuskaritza euskaraz izan da, eta euskaraz erregistratu da.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

MERKATARITZA ERREGISTROKO ELAY-KO KONTU IKUSKARITZAREN TXOSTENA:

Deloitte.

**Elay, S.L. eta mendeko
sozietateak**

2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontu bateratuak eta kudeaketa-txostena, auditoretza independentearen txostenarekin batera.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA